



BILERA AKTA			
NOIZ	Urriak 22	ORDUA	arratsaldeko 19:00etan
NON	Arraztaloren egoitzan (Martintxo kalea 1, Altzibar)		
PARTAIDEAK	Pepi M., Itziar L., Merche U., Mari Cruz A., Jokin G., Itziar B., Marta S., Mari O.Asier B., Gurutzeta S., Tatiana A., Pedro d., Iñaki A., Joaki O., Joxe Mari M., Domi A., Jon d., Lurdes L.		

1. Iazko aktaren puntuak azaldu ziren. Web orrian zintzilikatua dagoela adierazi zen. Akta onartu zen.

2. Oarsoaldeko proiektua

Proiektuaren bilakaera azaldu zen. Erakunde ezberdinekin izandako hartu-emanak eta azken berriak.

Aurrekontu parte-hartzaileak 2016an ez direla izango azaldu zen, baina Foru Aldundiak proiektu konkretuak aztertzeko konpromisoa hartu du. Honen harira, Foru Aldunditik, Parte Hartzeko sailetik deituko digute bilera bat egiteko.

Baratzeko arduradunak langile berriekin izandako esperientzia azaldu zuen. Hasiera gogorra, Oiartzungo langileekin hartutako dinamika hautsi egin zelako, eta lanaren antolaketa berria egin behar izan dutelako. Behin hau pasata, oso gustura daude denak, eta batez ere langileak. Batzuek lehenengo soldata dute Arraztalokoa.

Langileen jarraipena Osakidetzako norbaitek egiten duen galdetu zen, langileen egoeran eman diren aurrerapausoak idatziz uztea garrantzitsua izan baitaiteke proiektuari sendotasuna emateko.

Azaroaren 5ean Beraungo Osasun Mentaleko zentroko arduradunekin bilera izango dela azaldu zen, langileen jarraipena egiteko. Bilera hauek bi hilabetero egiten dira. Ziuertagiri edo txosten bat egiterik baduten galdetuko da, batez ere Oarsoaldeko proiektuari dagokionean. Oiartzungon langileekin egiten den lanari buruzko ziuertagiria orain dela urte batzuk egin zuten.

3. Oarsoaldeko hitzaldiak

Oarsoaldeko Hitzaldiak zein izan ziren azaldu zen. Hitzaldian izandako pertsona batek hitzaldien inguruko bere iritzia eman zuen. Espero baino jende gehiago, informazio interesgarria eta batez ere azkeneko egunean sortu zen eztabaida interesgarria. Hitzaldiak Oarsoaldeko proiekturako jendea erakartzeko ere bazirela



kontuan hartuta, agian hor ez dugu asmatu. Dagoeneko zeuden bolondresak izena eman zuten etorkizunean laguntzeko, baina inor berririk ez.

4. Baratzak eta kontsumo taldea

Baratzei dagokionean, aurten piperren urtea izan da. Asko jaso dira, baina bukatu dira. Neguari begira, gehiena Petra Lekuonako baratzan landatu da, iaz ikusi baitzen Ergoiengo baratza oso hezea eta iluna dela. Ergoien azkeneko barazkiak jaso ondoren, lurrari atseden hartzen utziko zaio.

Oarsoaldetik etorritako langileei esker, Altzibarren negutegia handitu ahal izan da eta han daude udazkenerako azelgak, eskarolak, arbiak eta abar. Arduradunak Karabeleko negutegietatik barazki berriak ekartzen hasi direla azaldu zuen (espinaka eta azelga arteko barazki bat eta mihilua (hinojo)).

Petra Lekuonako lur zati bat gorde da bertako negutegia handitzeko. Negutegi hau hazietarako erabiliko da. Helburua hazien %80a guk ekoiztutakoa izatea da. Kontuan hartu behar da ENEEKEN ziurtagiri ekologikoa lortzeko prozesuan gaudela, eta hazi ekologikoak edukitzea garrantzitsua dela. Inguruko banatzaileei haziak erostea oso garestia da. Negutegi hau jartzeko egitura badugu, ekarri eta jartzea falta da.

Aurten, 900-1000 litro sagardo ekoiztu dira. Hurrengo urtean, Arkaleko sagastiak sagarrak ematen hastea espero da.

Azkenik, laugarren lur-sail baten beharra aipatu zen. Honen inguruan, galdetu zen Oarsoaldeko langilerik gabe, ez ote den lan asko izango beste lur-sail bat hartzea. Baratzetako arduradunak erantzun zuen beste lur-sail hau eremu handia behar duten barazkientzat izango litzatekela (babarrunak artoarekin jartzeko edo patata landatzeko). Oraingo eremuetan horrelako barazkiek leku handia kentzen dute, baina ez dute lan handirik ematen. Gainera gaur egun duten makinariarekin eta langile kopuruarekin laugarren lur-sailak ez luke dinamika gehiegi aldatuko.

Kontsumo taldeari dagokionean, arduradunak aipatu zuen, 35 pertsona daudela gaur egun, itxaron zerrenda dezente jaitsi dela, eta orain, taldean sartzen direnak bataz-beste sei hilabete egon direla zain. Dozena erdi bat pertsona daude itxaron zerrendan.

Kontsumo taldearen erronka nagusia, parte-hartzea handitzea da. Orain dela urte bat baino gehiegi erabaki zen lan batzuk zerrendaren arabera txandaka banatzen hastea. Taldeko bi pertsonak hartu zuten lan hori, baina ez da erreleborik egon. Errelebo hori bilatzea izango da erronka.

5. Diru kontuak



2014ko diru kontuak aurkeztu ziren. Diru gehiena langileen soldata, gizarte segurantzaren eta zergatzen gastatzen da (80000€ inguru). Hortik erdia, udalaren diru laguntzarekin finantziatzen da, laurdena kontsumo taldeko irabaziekin eta beste laurdena lortzeko formula ezberdinak erabili dira. Urte batzuetan ordainketak atzeratu dira, beste urte batean E.R.E bat egin zen eta langileekin soldata kobratzeko epeak atzeratzea adostu zen.

2015eko kontuak ere azaldu ziren (urtarrila eta ekaina bitartekoak). Aurtengo berezitasuna Oarsoaldeko proiektua izan da. Udalak emandako 40200€-ez gain, Foru Aldundiak 50000€ jarriko ditu Oarsoaldeko proiektuarentzat. Diru-sarrerak igo diren arren, 6 langile (irailtik azarora) eta arduradun berri bat (ekainetik azarora) kontratatu dira, beraz diru kontuak antzeko ibiliko dira urte bukaeran. Eskualdeko udaletatik, konpromiso gisa, 15000 €-ko aportazioa eskatu zen Oarsoaldeko proiekturako (5000€ udal bakoitzari). Proiektuak udaletan izan duen erantzun eskasa ikusita, eta Foru Aldundiak harremanetan lagundu ez duenez, ez da espero diru hau jasotzea.

Arduradunak aipatu zuen langileria gastuez gain, baratzetan mantenimendu gastuak ere badaudela.

Aipatu zen aurrekontua osatzeko falta den dirua lortzeko Kontsumo Taldeko kideak igotzea izan daitekeela irtenbide bat. Arduradunak honen inguruan esan zuen, kontsumo taldea handitzearekin kontuz ibili behar dela, langileengan ere eragina baduelako.

Hainbesteko lana eskatzen ez duten eta denbora luzez gorde daitezkeen produktuekin ere lanean hasi proposatu zen (intxaurrak adibidez). Larunbatetako azokan parte-hartzea ere proposatu zen, baina erantzun zen baratza lanerako hobe dela kontsumo taldea, eskaera egonkorragoa delako.

Ondorio gisa adierazi zen, kontuetan oreka lortzeko bidea Enplegu Zentro Berezia sortzea dela.

6. Hileroko jarraipen bilerak

Arraztalon momentuan dauden gaiez hitz egiteko eta horiek lantzeko hilabetero, aurreneko ostegunean 18:30ean, jarraipen bilerak egingo direla adierazi zen. Hurrengo azaroaren 5ean izango da. Helburua, gai praktikoak lantzea da (hitzaldiak antolatu behar direnean, azokak antolatu, diru kontuak eta abar) eta horien inguruko ideiak eta proposamenak jasotzea.

7. Lokalaren kontratu amaiera



Altzibarko egoitza, 2010ean Elizak utzitako lokal batean dago. 2016ko urtarrilaren 5ean lagapen kontratua bukatzen dela azaldu zen. Lokalaren jabeak jakinaren gainean daude eta azaroan gaia landuko da.

8. Gizarte Hezkuntza Kontseiluan parte-hartzea

Gizarte Hezkuntza Kontseilua zer den eta nork parte hartzen duen azaldu zen. Azkeneko urtean, udalaren ekimenez, aholkularitza enpresa batzuk etorri dira kontseilura, gai ezberdinei buruzko lanketa egitera (drogomenpekotasuna, teknologia berriak, parekidetasuna, eta abar). Batez ere, eskoletan gai hauek lantzerantz bideratu da elkarlana.

Herriko beste eragileekin izandako harremanetan, baratzetako bisitak aipatu ziren. Haurtzaro Ikastolatik eta Elizalde Herri Eskolatik bisitak izan direla eta esperientzia oso positiboa izan dela azaldu zen, bai haurrentzat eta baita langileentzat ere. Gaixotasun psikikoa dutenentzat oso garrantzitsua da horrelako harremanak izatea, haurrek entzun eta beraiek esaten dutena egiten dutela ikusten baitute. Taldetxoak antolatu dira, eta haurrak baratzetan lanean aritu dira, landatzen adibidez. Irakasleentzat ere aberasgarria izan zen, behin baratzetara joanda proiektua ezagutu eta galderak egiteko aukera izan baitzuten.

Haurtzaro Ikastolako ordezkari batek aipatu zuen beraientzat oso esperientzia interesgarria izan dela.

Udalekuetako haurrek ere bisitak egin dituzte udan. Kasu honetan, egun bat baino gehiagoko programa antolatu ahal izan da eta egitarau horretan Arraztaloren egoitzara bisita ere antolatu zela azaldu zen. Horrela baratzetako lanaz gain, gaixotasun psikikoz eta elkarteaz haurrei informazioa ematea lortu da.

Etorkizunerako honi forma eman nahi zaio, eta Arraztalo ikastetxeentzat material didaktikoa prestatzen saiatzen ari dela azaldu zen. Horrela, ikastetxeei euskarri bat eman nahi zaie, baratzetara egiten diren bisitak, elkarteak gaixotasun psikikoarekin egiten duen lanarekin lotzeko eta orokorrean gaixotasun psikikoaren problematika landu dadin. Material didaktiko bat aukeratuta dago, orain diseinua eta itzulpena (ingelesetik) egitea falta da. Diru-laguntza bat eskatu zen horretarako, baina ez da lortu. Elkartean lagundu izan duten pertsona batzuk diseinua egiteko prest daude, baina itzulpenak zuzentzen laguntzeko norbaiten bila dabil Arraztalo. Ttur-Tturrekin lehenengo kontaktua egin dela azaldu zen, laguntzerik baduten ikusteko. Erantzunaren zain gaude.

9. Beste lanak

9.1. Enplegu Zentro Berezia



Aspaldian esku artean dugun gaia da. Enplegu Zentro Berezi bat figura juridiko bat dela azaldu zen. Bereziki ezintasunak dituzten pertsonentzat lanpostuak sortzeko enpresa mota bat da. Arraztaloren aktibitatea Enplegu Zentro Berezi bat bezala erregistratuko balitz, soldaten erdiak eta gizarte segurantza osoa Lanbidek ordainduko luke.

Zentro hori sortzea ezinezkoa da gaur egun Euskadin, Eusko Jaurlaritzak ez baitu legerik erregistro horren funtzionamendua arautzeko. 2014 hasieran Legebiltzarrean honi buruz Enplegu Sailburuari galdera bat egitea lortu zuen Arraztalok mozio baten bidez. Erantzuna (2014ko udazkenean) izan zen 2015eko lehenengo hiruhilekoan dekretua prest edukiko zutela. Gaur egun ez dago dekreturik.

Lehendakariak azaldu zuen, asanbladaren egunean bertan, Oarsoaldea Garapen Agentziaren bidez jakin izan zuela 2015eko urriaren 27an sailburuari berriz ere galdetuko zaiola honi buruz Legebiltzarreko Ohiko bilkuran, eta Arraztalo bilkura horretara gonbidatuta zegoela.

Asanbladan Legebiltzarrera joateko autobus bat antolatzea proposatu zen.

9.2. Azokak

Iturriotzeko azokan postua jarri zela azaldu zuen. Xanistebanetan ere azoka antolatzeko ardura izan genuen eta nahiko arrakastatsua izan zen.

Txerri Eguneko lehenengo antolaketa bilera urriaren 28an izango da.

Oiartzunen, 2015eko azaroaren 1ean